

BOST EUSKAL HERRITAR EVERESTEN


Munduaren gailurrean



JUAN VALLEJO



JUANITO OIARZABAL



EDURNE PASABAN



PATXI GOÑI



JULEN REKETA

EGUN HANDIA. Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal gasteiztarrak, Edurne Pasaban tolosarra, Patxi Goñi irunberriarra eta Julen Reketa laudiarra Everesteko tontorrera iritsi ziren atzo, hiru espediziotan. Vallejo eta Oiarzabal oxigenorik gabe igo ziren goraino, iparraldeko maldetatik. Pasaban, berriz, Everestera igo den lehen euskal emakumezkoa da. /26-28

EUSKARA NAFARROAN

Gobernuak ingelesaren parean jarri nahi du euskara unibertsitatean

Pegenautek baieztatu du NUPen ez dela ikasketarik eskainiko euskaraz, Irakasletzan izan ezik

ATZERAPAUSSA. Egitasmoa NUPek berak onartutako hizkuntza plangintzaren aurkakoa da

IKASLEAK. Unibertsitateko bost ikasletik bat gai da euskaraz ikasteko /6-7

ATENTATUA

EHUko zinpeko guardia bati bonba bat jarri diote autoan, baina ez da lehertu

Gidariaren eserlekuaren azpian zegoen jarria, eta Ertzaintzak leherrarazi zuen /8

Babesleak:

bbk

kutxa
zuri esker

xuxen
euskarazko zuzentzaile ortografikoa

4. KUPOIA OSTEGUNA

Egunkaria

Roland Dumas ministro ohia epaitzen hasi dira 'Elf auziagatik'